



# **GOBERNU BILERA**

## Prentsa-Txostena Gai nagusiak

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## Dossier de Prensa Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilak 12k**

**Vitoria-Gasteiz, 12 de abril de 2016**

## Herri Administrazioa eta Justizia

**EUSKO JAURLARITZAK PENTISIO BAXUAK OSATZEKO EKIMENAK EZ  
DUELA EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN, AURREKONTUEN ETA  
JURIDIKOAREN IKUSPUNTUTIK BEHARREZKOA DEN SEGURTASUNA  
USTE DU**

- Eusko Jaurlaritzak ekimena aurkeztu duen taldeari gogoratu dio pentsio baxuak dagoeneko diru-sarrerak bermatzeko errentaren bitartez osatzen direla eta euskal herritarrak gizarte-kohesioa bermatzeko ahalegin izugarria egiten ari direla, Euskal gizarte babeseko sistemak Estatuan parekorik ez duenik.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko EH Bilduk *Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan erretiro-pentsio duinak bermatzeko* aurkeztutako lege-proposamena kontuan hartzearen aurkako irizpidea azaldu du Gobernu Kontseiluak gaur, ekimenak ez duelako hain sakoneko araudiak eskatzen duen bermerik ematen, segurtasun ekonomiko-finantzarioaren, aurrekontuen eta juridikoaren ikuspuntutik.

Lehenengoz, Eusko Jaurlaritzak gaur egun erretiro-pentsio baxuenak diru-sarrerak bermatzeko errentaren bitartez osatzen dituela gogoratu dio ekimena proposatu duen taldeari. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du *Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen* 6.1.a), 9.2.a), 15.1, 20.1.c) eta 23.3 artikuluek lege-proposamen horretan eskatzen dena arautzen dutela.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, gainera, EH Bilduren ekimenak ez du bermerik ematen ez segurtasun ekonomiko-finantzarioaren ez segurtasun juridikoaren ikuspuntutik. Hain sakoneko aldaketa legegile bat proposatu aurretik, Eusko Jaurlaritzak uste du diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema osoaren bideragarritasunean zein Euskadiko Aurrekontu Orokorretan duen eraginaren gaineko eztabaida ireki behar dela. Gainera, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du Euskadiko gizarte-babeseko sistemak Estatu osoan ez duela parekorik, hein handi batean, euskal herritarrak gizarte-kohesioa bermatzeko egiten ari diren ahalegin izugarriari esker.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### EUSKADIKO EPAITEGIEK ESPETXERATZEAREN ORDEZKO 5.754 ZIGOR EZARRI ZITUZTEN 2015EAN, GEHIENBAT GENERO-INDARKERIAREN ETA BIDE-SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUETAN

- Delituen % 87,68ren egileak Bizkaian bizi diren gizonak dira, eta 31 eta 40 urte artean dituzte.
- Espetxeratzearen ordezkoko zigor nagusia, kasuen % 90,3ri dagokiona, gizartearentzat lan egitea edo sentsibilizazio- eta berreziketa-programetan parte hartzea izan zen.
- Eusko Jaurlaritzak 879.600 euro inbertituko ditu aurten Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuan. Erakunde horrek koordinatzen ditu birgizarteratzeko eta espetxeratzearen ordezkoko neurriak astuntasun txikieneko delituen kasuetan.

Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua koordinatzen eta finantzatzen du Eusko Jaurlaritzak, astuntasun txikiko delituak egin dituzten pertsonak berrezi eta birgizarteratzeko. Horiei epaitegiek espetxeratzearen ordezkoko zigorrak ezartzen dizkiete. Eusko Jaurlaritzaren doako zerbitzu honek **5.754 auto** kudeatu zituen 2015ean. Gehienak, % 87,68, genero-indarkeriako edo bide-segurtasunaren aurkako delitugile gizona zegoen. Mota horretako zigor gehien, % 30,2, jasotako adin-tartea 31 eta 40 urte artekoa izan zen. Gehienak, % 54,9, Bizkaian.

2016an, Eusko Jaurlaritzak 879.600 euro inbertituko ditu 2011n sortu zuen zerbitzu horretan.

### 2015EAN EMANDAKO AUTOAK, ARRAZOIAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA
BIDE-SEGURTASUNAREN AURKA	344	(% 30,07)	1.225	(% 38,72)	345	(% 23,86)	1.914 (% 33,26)
GENERO-INDARKERIA	378	(% 33,04)	724	(% 22,88)	487	(% 33,68)	1.589 (% 27,61)
ONDAREAREN AURKA	27	(% 2,36)	449	(% 14,19)	149	(% 10,30)	625 (% 10,86)
PERTSONEN AURKA	88	(% 7,69)	366	(% 11,57)	137	(% 9,47)	591 (% 10,27)
OSASUN PUBLIKOAREN AURKA	24	(% 2,10)	81	(% 2,56)	55	(% 3,80)	160 (% 2,7)
SEXU ASKATASUNAREN AURKA	2	(% 0,17)	12	(% 0,38)	6	(% 0,41)	20 (% 0,34)
BESTE BATZUK	281	(% 24,56)	307	(% 9,70)	267	(% 18,46)	855 (% 14,85)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.144</b>	<b>(% 100)</b>	<b>3.164</b>	<b>(% 100)</b>	<b>1.446</b>	<b>(% 100)</b>	<b>5.754</b> <b>(% 100)</b>

### 2015EKO AUTOAK, GUZTIRA, SEXUAREN ARABERA

	GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA	5.045 (% 87,68)	709 (% 12,32)

### 2015EKO AUTOAK, GUZTIRA, ADINAREN ARABERA

	18-30	31-40	41-50	51-65	65 baino gehiago	Daturik ez
GUZTIRA	1.588 (% 27,60)	1.738 (% 30,21)	1.438 (% 24,99)	726 (% 12,62)	100 (% 1,74)	164 (% 2,85)

### 2015EKO AUTOAK, LURRALDEAREN ARABERA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
GUZTIRA	1.144 (% 19,88)	3.164 (% 54,98)	1.446 (% 25,13)	5.754 (% 100)

## ESPETXEAREN ORDEZKO ALTERNATIBAK

Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua diziplina anitzeko profesionalek osatzen dute, tartean, legelariak, psikologoak eta gizarte-langileak. Zigorra jarritako pertsonen egindako delituaren ondorioen erantzukizuna beregain hartzea da helburua, eta, ondorioz, biktimari edo kide den komunitateari eragindako kaltea erreparatzea. Horretarako, epaitegietan espetxeratzen ordezko **hiru zigor mota** ezartzen dira:

- ✓ **Gizartearentzat lan egitea edo sentsibilizazio-programetan parte hartzea:** 2015ean, epaitegiek **mota horretako 5.198 auto eman zituzten, guztien % 90,3**. Zigorra jarritako pertsonen gizartearentzat lan egin behar dute GKEtan, udaletxeetan, etab., edo berreziketa- eta sentsibilizazio-programetan parte hartu.
- ✓ **Zigorak etetea programa terapeutikoetan parte hartzeagatik:** 2015ean, epaitegiek **mota horretako 426 auto eman zituzten, guztien % 7,4**. Zigorra jarritako pertsonak programa terapeutiko bat edo buruzko osasun-programa bat egin behar dute.
- ✓ **Osasun mentaleko zentro bateko segurtasun-neurriak:** 2015ean, epaitegiek espetxeratzearen ordez osasun mentaleko zentroetan sartzeko **135 auto eman zituzten, guztien % 2,3**.

## BERREZIKETA- ETA BIRGIZARTERATZE-PROGRAMAK

Eusko Jaurlaritzak bi berreziketa- eta sentsibilizazio-programa nagusi ditu espetxe-zigorra ordezkatu zaien pertsonentzat, bi delitu mota nagusieki dagozkienak: genero-indarkeria eta bide-segurtasunaren aurkakoa.

- ✓ **Indarkeria matxistari loturiko berreziketa-programa edo GAKOA programa:** laz, **213 gizonen hartu zuten parte programa horretan, eta**

**1.502 esku-hartze** egin ziren, banaka, senideekin edota taldean. Programa horrek gizonen birgizarteratzea lantzen du, egindako delituaren erantzukizuna beregain har dezaten. Psikologiako aditu-talde batek egiten du lan gizon horiekin, emakumeen aurkako indarkeria-dinamikak zuzentzeko, dinamika horien adierazpidea edozein dela ere.

**2015EAN ARRETA EMANDAKO GIZONAK**

<b>ARABA</b>	<b>31 (% 14,5)</b>
<b>BIZKAIA</b>	<b>116 (% 54,5)</b>
<b>GIPUZKOA</b>	<b>66 (% 31)</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>213</b>

**2015EAN EGINDAKO ESKU-HARTZEAK**

	<b>ARABA</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Banakako saioak</b>	181	839	344	<b>1.364</b>
<b>Esku-hartzeak familian</b>	0	15	0	<b>15</b>
<b>Terapia-taldearekin saioak</b>	0	84	0	<b>84</b>
<b>Hezkuntza-psikologiako taldearekin saioak</b>	0	19	20	<b>39</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>181</b>	<b>957</b>	<b>364</b>	<b>1.502</b>

- ✓ **Bide-segurtasuneko sentsibilizazio-programa: 2015ean, 1.061 pertsonak hartu zuten parte 37 prestakuntza-tailerretan.** Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu hiru lurralde historikoetan. Programa horren arrakasta handia da; izan ere, tailerron amaieran % 80,58k jaso zuten gai kalifikazioa. Ez-gai kalifikazioa jasotzen dutenean, kasua epailearen esku jartzen da berriro, eta horrek erabakitzen du zer neurri ezarri.

	<b>BERTARATUAK</b>	<b>GAI</b>	<b>EZ GAI</b>
<b>ARABA</b>	165	130	35
<b>BIZKAIA</b>	739	614	125
<b>GIPUZKOA</b>	157	111	46
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.061</b>	<b>855 (% 80,58)</b>	<b>206 (% 19,41)</b>

## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK KLUSTERRENTZAKO 2.400.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU**

Programaren helburua da euskal autonomia-erkidegoko kluster-elkarteei emandako laguntza arautzea, diru-laguntzen bitartez, ETEen eta, oro har, euskal ekonomiaren lehiakortasuna bultzatzeko.

Diru-laguntza horien bidez, ETEen, enpresa handien, ezagutza-hornitzaileen eta eskualdeko berrikuntza-sistemetak beste eragile batzuen arteko lankidetzak, kluster bakarra edo klusterren taldea osatuta, bultzatzeko jarduerak lagundu eta sustatuko dira 2016an. Horretarako, kontuan hartuko da ETEek zailtasunak dituztela erronka globalei bere kasa aurre egiteko, behar bezain handiak ez direnez.

Europako lehiakortasun- eta hazkunde-arloko estrategiak garrantzi berezia aitortzen die klusterrei, RIS3ak edo espezializazio adimentsuko eskualde-estrategiak zehazten dituzten aldetik.

Horrenbestez, agindu horri loturiko laguntzak jasotzeko, kluster-elkartearen plan estrategikoa osatu beharko da, erronka komunak identifikatuta nazioartekotze-estrategietan, berrikuntza teknologikoan eta enpresa-berrikuntzan, eta kluster-elkartek RIS3 espezializazio adimentsuko strategiaren lehentasunekiko duen posizionamendua islatuta.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nazioartekotze Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 PK, Gasteiz) edota sail horren lurralde-bulegoetan aurkeztu beharko dituzte eskabide-egileek eskabideak eta dokumentazio osagarria, hain justu ere zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean aurreikusitako eraren baten.

Eskabide-orri normalizatua, erantzukizunpeko adierazpena eta inprimakia Interneteko helbidean –[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)– bete eta/edo deskargatu ahal izango dira.

## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 500.00 EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRI DITU ESNETARAKO BEHI AZIENDARAKO ETA UNTXI HAZKUNTZARAKO**

- **Helburua da ustiategiak mantentzen laguntzea, ahal den neurrian dituzten zailtasunak arinduta**
- **Euskadiko abeltzainek jasoko dituzten laguntza zuzenek Esne Sektorearen Batzordean hartutako helburuetako bati erantzuten diote**

Apirilaren 12an Kontseiluak egindako bileran, esnetarako behi ustiategietarako eta untxi hazkuntzarako ustiategietarako aurten minimien erregimenaren pean emango diren laguntza zuzenak iragartzeko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapiak emandako agindua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

2015eko irailean Esne Sektorearen Batzordean euskal exekutiboak hartutako konpromisoari erantzuten diote laguntzek, eta haien helburua da esnearen salmenta prezioen jaitsierak, lurraldearen zati batean ekoizpen kostuek izan duten igoerak eta sektorea berregituratzeko beharrezkoa den aparteko fondoak ekarritako likidezia arazoa arintzea.

2016an Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emango diren laguntzen bolumen osoa 500.000 eurokoa izango da gehienez.

Hauek dira baldintzetako batzuk:

- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan kokatuta dagoen ustiategi baten titularra izatea.
- Ustiategia Euskal Herriko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean eta Nekazaritza Ustiategien Erregistroan (REGA) inskribatuta egotea dagokion sailkapenarekin.
- Nekazari profesionala izatea, abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4.artikuluak ematen duen definizioaren arabera.
- Abereen trazabilitate, ongizate, higiene eta osasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzea, eta arlo horretako arauak hausteagatik zigortuta ez egotea deialdi honen aurreko azken hiru urteetan.
- Foru Ogasunekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharren ordainketak egunean edukitzea.
- Minimien erregimenaren pean 15.000 euroren laguntzak jasota ez izatea, kontzeptua edozein dela ere, ez deialdi honen aurreko bi zerga ekitaldietan, ez eta oraingo zerga ekitaldian ere.

Esnetarako behi azienden kasuan, laguntza eskuratzen duten ustiategiek gutxienez 20 abelburu eduki beharko dituzte, eta untxi hazkuntzarako ustiategien kasuan, berriz, gutxienez 100 untxi buru.

Laguntza eskaerak Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariari zuzenduko zaizkio eta, aurkeztu, Nekazaritzako Eskualde Bulegoetan zein Ekonomiaren Garapeneko Sailaren bulegoetan edo azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusten dituen lekuetako edozeinetan. Eskaerak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.



## Ogasuna eta Finantzak

### **JAUARKARITZAK DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN LEGE-PROIEKTUA ONARTU DU**

**Gobernu-kontseiluak diru-laguntzen araubidea arautzen duen lege-proiektua onartu du gaur.**

Lege-proiektu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ematen dituen diru-laguntzen kudeaketa eta emakidarako araubide juridiko orokorra arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardueraren parte garrantzitsu bat da diru-laguntzen kudeaketa, eta kontuan hartzekoa da, gainera, ikuspegi bikoitza duela: batetik, gastu publiko mota bat da, eta, bestetik, administrazio jarduera bat, interes publikokotzat jotzen diren jarduera eta jokabide jakin batzuk sustatzeko.

Gastu publiko diren heinean, diru-laguntzek, ezinbestez, aurrekontu-legeetara egokitu behar dute. Gastu publiko orok bezala, diru-laguntzen kudeaketak zenbait printzipio bete behar ditu, hala nola gardentasuna, objektibotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia.

Administrazio-ikuspegitik, berriz, botere publikoek beren eskumenak gauzatu behar dituzten eremuetan zenbait jokabide sustatzeko teknika bat dira diru-laguntzak. Diru-laguntzak emanda, onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak edo helburu publiko jakin bat lor daitezten sustatzen dute administrazio publikoek.

Aurretik esandakoaren harira, funtsezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak kudeatzen eta ematen dituen diru-laguntzak arautzea eta kontrolatzea, esparru juridiko orokor bat eskaintzeko, eta, hala, diru-laguntzak izapidetzen dituzten erakundeek behar duten segurtasun juridikoa izan dezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren diru-laguntzak, gaur egun, arau honetan daude jasota: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. tituluari. Titulu horrek arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntzen eta diru-laguntzen araubide juridikoa.

Diru-laguntzei buruzko euskal araudia ia 20 urtez indarrean egon eta gero, beharrezkotzat jo da arauak berregitea, diru-laguntzen arloko segurtasun juridikoa eta araudi osatuagoa, integratuagoa eta gardenagoa bateratuz.

Legeak xedapen-zati bat du, atariko tituluan eta lau titulutan banatuta dago; guztira berrogeita zazpi artikulua ditu, hiru xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

Atariko tituluan, besteak beste, aplikazio-eremu subjektiboa, diru-laguntza eta onuraduna kontzeptuak, onuradun izateak zer betebeharrak dituen, eta diru-laguntza publikoak emateko eskumena nork duen arautzen dira.

Eremu subjektiboari dagokionez, proiektu hau honako hauek kudeatutako diru-laguntzetara dago bideratuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Administrazioako erakunde autonomoak, Erakunde Administrazioako zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, baldin eta haien eratze-legeak edo estatutu-arauek espresuki ematen badiete sustapenerako administrazio-ahalmena, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak ere.

Horrez gain, diru-laguntzen kudeaketan bete behar diren printzipio orokorrak bildu dira; hain zuzen ere, planifikazioa, publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza, eraginkortasuna eta efizientzia.

I. tituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa gaur egun garatzen ari den prozedura-motak arautzen dira.

II. titulua diru-laguntza publikoak kudeatzeko eta justifikatzeko prozeduraz ari da. Diru-laguntza zer gastutarako jaso daitekeen, araubidea zein den, eta diru-laguntzak nola justifikatu behar diren ezartzen du.

Era berean, diru-laguntzen aurrekontu-kudeaketarako prozedura jasotzen du, eta gastuak eta ordainketak nola onartu arautzen du.

III. tituluan, berriz, emandako diru-laguntzak itzultzeko prozedura jaso da: zein kasutan, itzultzeko arrazoiak zein izan daitezkeen eta kasu horietan zer betebeharrak dauden arautzen du, eta itzulketen arloan preskripzio-epea zein den zehazten.

Eta IV. tituluan, zehapen-araubidea jaso da, non arau-hausteen eta zehapenen zerrenda bana egin den.

## Ogasuna eta Finantzak

**LANKIDETZA-HITZARMENA SINATU DUTE ESTADISTIKAKO INSTITUTU  
NAZIONALAK ETA EUSTATEK, 2016KO EUSKADIKO NEKAZARITZA-  
USTIATEGIEN EGITURARI BURUZKO INKESTA EGITEKO**

Espainiako Estadistika Erakundearen eta Euskal Estadistika Erakundearen arteko hitzarmena sinatzeko baimena ematen duen akordioa onartu du Gobernu Kontseiluak, 2016ko Euskadiko nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko inkesta egiteko.

Ondorioz, ikerlan bakarra egingo da Euskadiko Autonomia Erkidegoan, eta, era horretan, aurreikusitako helburuak betetzeko beharrezko informazioa lortzean bi erakundeetarako estadistika egitarauetan aurreikusten den bezala.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO TITULU BERRIENTZAT CURRICULUMAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu ditu Lanbide Heziketako Goi Mailako ikaskuntzatan hiru titulu berriren curriculumak ezartzen dituzten Dekretuak: Erradioterapia eta Dosimetriako Goi Mailako Teknikariaren titulua; Laborategi Kliniko eta Biomedikoko Goi Mailako Teknikariaren titulua; eta Anatomia Patologikoko eta Zitodiagnosiko Goi Mailako Teknikariaren titulua, guztiak ere Osasungintza lanbide-arlokoak.

Ikastetxeak, pedagogian eta antolaketan duen autonomiaren barruan du ikastetxearen curriculum-proiektua zehaztearen ardura. Proiektu horretan behar diren erabakiak hartuko ditu ikastetxeak, irakaskuntzan egin beharreko lanari begira haren ezaugarriak eta identitatea konkretatzeko, baita prestakuntza-moduluen programazioak egiteko irizpideak finkatzeko ere.

Ikastetxearen curriculum-proiektuaren barruan, irakasle-taldeak, zikloko arduradunek eta irakasle bakoitzak egin beharko dituzte programazioak, ezartzen diren helburu orokorrak kontuan hartuz, lanbide-modulu bakoitzak dituen ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatuz eta, bereziki, irakaskuntzen erreferentzia den perfil profesionala euskarri gisa erabiliz.

## Osasuna

### **GOBERNU-KONTSEILUAK ONARTU DU OSASUN-LARRIALDIETAKO GARRAIO-SARERAKO OSASUN-GARRAIOAREN ETA OSASUN-LARRIALDIETAKO ARRETAREN KONTRATUA**

Gobernu-kontseiluak onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun-larrialdietako Garraio-sarerako osasun-garraioaren eta osasun-larrialdietako arretaren kontratua, hasiera batean bi urterako, eta 36.378.273 euroko aurrekontuarekin.

Kontratazioaren xedea da 42 anbulantziaren eta horien egoitzen bidez zerbitzua ematea, anbulantzia horietatik 9 bizi-euskarri aurreratukoak, erizaintza barne, eta 33 oinarrizko bizi-euskarrikoak direla. Lurrealdean, 13 anbulantzia Araban egongo dira, 10 Bizkaian eta 19 Gipuzkoan. 42 anbulantzia horiek, kontratua indarrean duten beste 31 anbulantziei gehituko zaizkie. Hala, 73 anbulantzia egongo dira erkidegoan, estrategikoki kokatuta, Euskadiko Osasun-larrialdietako Garraio-sarea osatuko dutenak eta Osakidetzako Larrialdietako Zuzendaritzak koordinatuta jardungo direnak.

Gobernu-kontseiluak espedientea izapidetzea gaur onartu ondoren, helegite kontraktualen administrazio-organoan errekurtsioa aurkeztu ondotik sortutako behin betiko egoera –aurreko kontratazio-prozedura gerarazita zegoen– zuzendutzat eman daiteke; alegia, 42 anbulantzia horiek lanean ari ziren larrialdietako kontratua deuseztatu da, zerbitzua kontratazio-espeditentia onartu arte, beraz, gaur arte, ez etetea bermatu duena.

## Administración Pública y Justicia

**EL GOBIERNO VASCO CREE QUE LA INICIATIVA PARA  
COMPLEMENTAR LAS PENSIONES DE JUBILACIÓN, CARECE DE LA  
SEGURIDAD ECONÓMICO-FINANCIERA, PRESUPUESTARIA Y JURÍDICA  
NECESARIA**

- **El Gobierno vasco recuerda al grupo proponente que las pensiones más bajas ya se complementan a través de la RGI y que la sociedad vasca ya está haciendo un enorme esfuerzo para financiar el sistema vasco de protección social, un sistema sin parangón en el panorama comparado.**

El Consejo de Gobierno ha mostrado hoy su criterio desfavorable a la toma en consideración de la Proposición de Ley -registrada por EH-BILDU- *“para garantizar las pensiones de jubilación dignas en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa”* por carecer de las garantías económico-financieras, presupuestarias y de seguridad jurídica que requiere una norma de esta envergadura.

En primer lugar, el Gobierno vasco recuerda al grupo parlamentario proponente que el Gobierno vasco ya compensa las pensiones de jubilación más bajas a través de la RGI. En este sentido, el Gobierno vasco recuerda los artículos 6.1.a), 9.2.a), 15.1, 20.1.c) y 23.3, de la *Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social*.

Además, el Gobierno vasco señala que la iniciativa de EH-BILDU no ofrece garantías desde el punto de vista de la seguridad económico-financiera y de la seguridad jurídica. Antes de proponer una reforma legislativa de tanto calado, el Gobierno vasco cree que se debería abrir un debate sobre su incidencia en la sostenibilidad de todo el sistema vasco de garantía de ingresos, así como en los Presupuestos Generales de Euskadi. En este sentido, el Gobierno vasco recuerda que el sistema vasco de protección social no tiene parangón en el Estado gracias, en buena medida, al enorme esfuerzo que ya está realizando la sociedad para lograr la cohesión social que posibilita dicho sistema de protección.

## Administración Pública y Justicia

### LA JUZGADOS VASCOS IMPUSIERON 5.754 CONDENAS ALTERNATIVAS AL INGRESO EN PRISIÓN EN 2015, LA MAYORÍA POR DELITOS DE VIOLENCIA DE GÉNERO Y CONTRA LA SEGURIDAD VIAL

- El 87,68% de los delitos fueron cometidos por hombres, residentes en Bizkaia y de la franja de edad de entre 31 y 40 años.
- La principal alternativa al ingreso en prisión, el 90,3% de los casos, fue la de realizar trabajos en beneficio de la comunidad o participar en programas de sensibilización y reeducación.
- El Gobierno vasco invertirá este año 879.600 euros en el *Servicio Vasco de Gestión de Penas*, encargado de coordinar todas estas medidas resocializadoras y sustitutivas de la cárcel en los casos de delitos de menor gravedad.

El *Servicio Vasco de Gestión de Penas* es un servicio que coordina y financia el Gobierno vasco para reeducar y reinserir en la sociedad, a las personas que han cometido delitos de menor gravedad y a las que, por tanto, los tribunales imponen condenas alternativas su ingreso en prisión. En 2015, este servicio gratuito del Gobierno vasco, gestionó **5.754 autos**, la mayoría de ellos, el 87,68%, fueron hombres condenados por haber cometido delitos de violencia de género o contra la seguridad vial. La franja de edad en la que más condenas de este tipo se produjeron, el 30,2%, fue la de entre 31 y 40 años, y el Territorio Histórico dónde más frecuencia se repitieron, el 54,9%, fue en Bizkaia.

En 2016, el Gobierno vasco invertirá 879.600 euros en este servicio que se creó en 2011.

### AUTOS DICTADOS EN 2015 POR MOTIVO Y TERRITORIO

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		TOTAL
CONTRA LA SEGURIDAD VIAL	344	(30,07%)	1.225	(38,72%)	345	(23,86%)	1.914 (33,26%)
VIOLENCIA DE GÉNERO	378	(33,04%)	724	(22,88%)	487	(33,68%)	1.589 (27,61%)
CONTRA EL PATRIMONIO	27	(2,36%)	449	(14,19%)	149	(10,30%)	625 (10,86%)
CONTRA LAS PERSONAS	88	(7,69%)	366	(11,57%)	137	(9,47%)	591 (10,27%)
CONTRA LA SALUD PÚBLICA	24	(2,10%)	81	(2,56%)	55	(3,80%)	160 (2,7%)
CONTRA LA LIBERTAD SEXUAL	2	(0,17%)	12	(0,38%)	6	(0,41%)	20 (0,34%)
OTROS	281	(24,56%)	307	(9,70%)	267	(18,46%)	855 (14,85%)
<b>TOTAL</b>	<b>1.144</b>	<b>(100%)</b>	<b>3.164</b>	<b>(100%)</b>	<b>1.446</b>	<b>(100%)</b>	<b>5.754 (100%)</b>

### AUTOS TOTALES 2015 POR SEXO

	HOMBRES	MUJERES
<b>TOTAL</b>	<b>5.045 (87,68%)</b>	<b>709 (12,32%)</b>

### AUTOS TOTALES 2015 POR EDAD

	18-30	31-40	41-50	51-65	Más de 65	No consta
<b>TOTAL</b>	<b>1.588 (27,60%)</b>	<b>1.738 (30,21%)</b>	<b>1.438 (24,99%)</b>	<b>726 (12,62 %)</b>	<b>100 (1,74%)</b>	<b>164 (2,85% )</b>

### AUTOS DICTADOS POR TERRITORIO 2015

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL
<b>TOTAL</b>	<b>1.144 (19,88%)</b>	<b>3.164 (54,98%)</b>	<b>1.446 (25,13%)</b>	<b>5.754 (100%)</b>

### **ALTERNATIVAS AL INGRESO EN PRISIÓN**

En el *Servicio Vasco de Gestión de Penas* trabaja un equipo multidisciplinar formado por profesionales del ámbito jurídico, psicológico y del trabajo social. El objetivo principal es que las personas penadas asuman su responsabilidad por las consecuencias del delito cometido y contribuyan a la reparación del daño causado a su víctima o a la comunidad a la que pertenece. Para ello, los tribunales imponen, principalmente **tres tipos** de fórmulas alternativas al ingreso en prisión:

- ✓ **Sustituciones de pena por Trabajos en beneficio de la comunidad (TBC) o por la participación en programas de sensibilización:** En 2015, la judicatura dictó **5.198 autos de este tipo, el 90,3% del total**. Son los casos en las personas penadas tienen que realizar labores comunitarias en ONGs, ayuntamientos, etc. o participar en programas de reeducación y sensibilización.
- ✓ **Suspensiones de condenas por participación en programa terapéuticos:** En 2015, la judicatura dictó **426 autos en este sentido, el 7,4% del total**. Son los casos en los que las personas condenadas tienen que acogerse a un programa terapéutico o de salud mental.
- ✓ **Medidas de seguridad en un centro de salud mental:** En 2015, la judicatura dictó **135 autos, 2,3% del total**, de cambio de la condena de cárcel por ingreso en un centro de salud mental.



## PROGRAMAS DE REEDUCACIÓN Y REINSERCIÓN SOCIAL

Los dos principales programas de reeducación y sensibilización del Gobierno vasco para las personas a las que se les ha conmutado la pena de cárcel, corresponden a los dos tipos de delitos más habituales: violencia de género y contra la seguridad vial.

**Programa de reeducación en materia de violencia machista o programa GAKOA:** El año pasado, **213 hombres participaron en este programa que practicó 1.502 intervenciones** individuales, familiares o en sesiones de grupo. Este programa trabaja en la resocialización de los hombres para que se responsabilicen del delito cometido. Un equipo psicológico experto, trabaja con ellos para reconducir las dinámicas violentas contra sus mujeres en cualquiera de sus expresiones.

### HOMBRES ATENDIDOS EN 2015

<b>ARABA</b>	<b>31 (14,5%)</b>
<b>BIZKAIA</b>	<b>116 (54,5%)</b>
<b>GIPUZKOA</b>	<b>66 (31%)</b>
<b>TOTAL</b>	<b>213</b>

### INTERVENCIONES REALIZADAS EN 2015

	<b>ARABA</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>TOTAL</b>
<b>Sesiones Individuales</b>	181	839	344	<b>1.364</b>
<b>Intervenciones en familia</b>	0	15	0	<b>15</b>
<b>Sesión Grupo terapéutico</b>	0	84	0	<b>84</b>
<b>Sesión Grupo Psicoeducativo</b>	0	19	20	<b>39</b>
<b>TOTAL</b>	<b>181</b>	<b>957</b>	<b>364</b>	<b>1.502</b>

- ✓ **Programa de sensibilización en materia de seguridad vial:** En 2015, **1.061 personas participaron en los 37 talleres formativos** organizados por el Gobierno vasco en los tres Territorios Históricos. El nivel de éxito de este programa es elevado, del 80,58%. recibieron la calificación de aptas, una vez finalizados los mismos. Cuando la calificación es de no aptos, el caso vuelve a manos del juez o jueza quien decide qué medida imponer.

	<b>ASISTENTES</b>	<b>APTOS</b>	<b>NO APTOS</b>
<b>ARABA</b>	165	130	35
<b>BIZKAIA</b>	739	614	125
<b>GIPUZKOA</b>	157	111	46
<b>TOTAL</b>	<b>1.061</b>	<b>855 (80,58%)</b>	<b>206 (19,41%)</b>

## Desarrollo Económico y Competitividad

### **EL GOBIERNO VASCO CONVOCA LAS AYUDAS A CLUSTERS POR UN IMPORTE DE 2.400.000 EUROS EN 2016**

El objetivo del programa, es regular el apoyo a las organizaciones clúster de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para, a través de subvenciones, promover la competitividad de las PYMEs y de la economía vasca, en general.

Ayudas para el apoyo y fomento en el año 2016 de las distintas actuaciones que impulsen la cooperación entre Pymes, grandes empresas, proveedores de conocimiento y otros actores de los sistemas regionales de innovación, ya sea dentro de un mismo clúster o entre diferentes clústeres, teniendo en cuenta que las Pymes tienen dificultades para afrontar los retos globales en solitario debido a su falta de dimensión.

La estrategia Europea en materia de competitividad y crecimiento, reconoce el papel primordial que los clúster desempeñan en la determinación de las RIS3 o estrategias regionales de especialización inteligente.

Por ello, las ayudas de esta orden exigirán un Plan Estratégico de la Organización Clúster que identifique retos comunes en las áreas estratégicas de internacionalización, innovación tecnológica e innovación empresarial, y reflejar el posicionamiento de la agrupación respecto a las prioridades de la estrategia de especialización inteligente RIS3.

Los solicitantes deberán dirigir y presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en la Dirección de Internacionalización del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad (C/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) o en las Delegaciones Territoriales de este Departamento, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El modelo normalizado de solicitud, de declaración responsable y los de justificación se podrán cumplimentar y/o descargar en la dirección de Internet [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus).

## Desarrollo Económico y Competitividad

### **EL GOBIERNO VASCO CONVOCA AYUDAS POR VALOR DE 500.000 EUROS PARA VACUNO DE LECHE Y CUNICULTURA**

- **El objetivo es contribuir al mantenimiento de las explotaciones paliando en lo posible las dificultades por las que atraviesan**
- **La ayudas directas que recibirán los ganaderos de Euskadi responde a uno de los objetivos adquiridos en la Comisión del Sector Lácteo**

El Gobierno Vasco ha aprobado, en su reunión de Consejo del 12 de abril, la orden de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad Arantxa Tapia por la que se convocan para el presente año ayudas directas, acogidas al régimen de mínimos, para las explotaciones ganaderas de vacuno de leche y a las explotaciones cunícolas.

Estas ayudas responden al compromiso adquirido por el ejecutivo vasco en la comisión del Sector lácteo del mes de septiembre de 2015, y tienen por objeto aliviar el problema de liquidez derivado de la bajada de los precios de venta de la leche, del incremento de costes de producción en parte del territorio y de las necesidades de fondo adicionales necesarias para la reestructuración del sector.

El volumen total máximo de las ayudas a conceder durante el ejercicio 2016 con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco asciende a la cantidad de 500.000 euros.

Entre estos requisitos están:

- Ser titular de una explotación ubicada en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Que la explotación esté inscrita en el Registro General de Explotaciones Agrarias del País Vasco y en el Registro de Explotaciones Ganaderas (REGA) con la clasificación que le corresponda.
- Ser agricultor profesional de conformidad con la definición contenida en el artículo 4 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre.
- Cumplir la normativa vigente en materia de trazabilidad, bienestar, higiene y sanidad animal, y no haber sido sancionadas por infracciones en esos ámbitos en los últimos tres años anteriores a esta convocatoria.
- Estar al corriente del pago de las obligaciones tributarias con las Haciendas Forales y con la Seguridad Social.

- No haber recibido 15.000 euros en ayudas acogidas al régimen de mínimos por cualquier concepto durante el período de los dos ejercicios fiscales anteriores a la presente convocatoria y durante el ejercicio fiscal en curso.

Las explotaciones beneficiarias en el caso del vacuno de leche, deberán contar con al menos 20 cabezas, mientras que las de cunicultura deben tener un mínimo de 100.

Las solicitudes de ayuda estarán dirigidas a la Directora de Agricultura y Ganadería y se pueden presentar tanto en las Oficinas Comarcales Agrarias, como en las dependencias del Departamento de Desarrollo Económico y o en cualquiera de los lugares previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. El plazo es de un mes desde el día siguiente a la publicación de la Orden.

## Hacienda y Finanzas

### EL GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY REGULADOR DEL RÉGIMEN DE SUBVENCIONES

**El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Ley regulador del régimen de subvenciones.**

El Proyecto de Ley regulador del régimen de subvenciones tiene por objeto la regulación del régimen jurídico general de las subvenciones cuya gestión y otorgamiento corresponda a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La gestión de subvenciones constituye una parte importante de la actividad del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi que es preciso considerar desde una doble perspectiva: como modalidad del gasto público y como actuación administrativa dirigida a fomentar determinadas actividades y comportamientos considerados de interés público.

Como modalidad del gasto público, las subvenciones deben ajustarse necesariamente a la legislación presupuestaria. Como todo gasto público, la gestión de las subvenciones ha de estar sometida a principios tales como la transparencia, la objetividad, la eficacia y la eficiencia.

Desde la perspectiva administrativa, las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos en los diferentes campos en que los poderes públicos han de ejercer sus competencias. A través de su concesión, las Administraciones Públicas fomentan la consecución de actividades de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

Por todo lo expuesto, la regulación y control de las subvenciones gestionadas y otorgadas por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi es esencial para ofrecer un marco jurídico general que ofrezca la debida seguridad jurídica a los órganos encargados de la tramitación de las mismas.

La regulación actual de las subvenciones de Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi está recogida en el Título VI del Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, que incluye una reglamentación del régimen jurídico de las ayudas y subvenciones dentro del ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Tras casi veinte años de su vigencia, por tanto, resulta conveniente la adaptación de dicha normativa con el fin de afianzar la seguridad jurídica en

materia subvencional con una regulación más completa, integrada y transparente.

La ley cuenta con una parte dispositiva que divide su articulado en un título preliminar y otros cuatro títulos, integrados por cuarenta y siete artículos, tres disposiciones adicionales, dos disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y cuatro disposiciones finales.

En el Título Preliminar se regulan, entre otros aspectos, el ámbito subjetivo de aplicación, el concepto de subvención, la consideración de la persona beneficiaria y sus obligaciones como tal, así como la competencia para la concesión de las subvenciones públicas.

En cuanto al ámbito subjetivo, el proyecto regula aquellas subvenciones que van a ser gestionadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, los organismos autónomos de su Administración Institucional, los entes públicos de derecho privado de la Administración Institucional, en la medida que su ley de creación o sus normas estatutarias les atribuyan de manera expresa la potestad administrativa de fomento, y los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Asimismo, se recogen los principios generales que deben presidir la gestión de las subvenciones tales como los de planificación, publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, eficacia y eficiencia.

El Título I regula los distintos tipos de procedimientos que en la actualidad se vienen desarrollando por parte de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Título II está dedicado al procedimiento de justificación y gestión presupuestaria de las subvenciones públicas. Así, se establece cuáles son los gastos subvencionales, el régimen de las actividades subvencionadas y el modo de justificación de las subvenciones.

A su vez, se recoge el procedimiento de gestión presupuestaria de las subvenciones, regulando la aprobación del gasto y los pagos.

El Título III recoge, por un lado, todo lo referido al procedimiento de reintegro de las subvenciones concedidas, regulando los supuestos, así como las causas de reintegro y los obligados al mismo, especificando el plazo de prescripción en materia de reintegro.

Y el Título IV recoge el régimen sancionador, en el que se establecen sendos elencos de infracciones y sanciones.

## Hacienda y Finanzas

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA Y EUSTAT PARA LA REALIZACIÓN DE LA ENCUESTA SOBRE LA ESTRUCTURA DE LAS EXPLOTACIONES AGRARIAS 2016 EN EUSKADI**

El Consejo de Gobierno ha aprobado la suscripción de un convenio entre el Instituto Nacional de Estadística y Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística-Eustat para la realización de la *Encuesta sobre la estructura de las explotaciones agrarias 2016* en Euskadi.

Se realizará así una única investigación en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi de forma que, obteniéndose la información necesaria para cubrir los objetivos previstos, en los planes establecidos de ambas instituciones.

## Educación, Política Lingüística y Cultura

### **CURRÍCULOS PARA NUEVAS TITULACIONES DE FORMACIÓN PROFESIONAL DE GRADO SUPERIOR**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, los Decretos por los que se establecen los currículos correspondientes a tres nuevos títulos de las enseñanzas de Formación Profesional de Grado Superior, todos ellos de la familia profesional Sanidad: Técnico Superior en Radioterapia y Dosimetría; Técnico Superior en Laboratorio Clínico y Biomédico; y Técnico Superior en Anatomía Patológica y Citodiagnóstico.

Corresponderá al centro educativo, dentro del marco de la autonomía pedagógica y organizativa de que se dispone, establecer su Proyecto Curricular de Centro, en el que abordará las decisiones necesarias para concretar sus características e identidad en la labor docente así como para determinar los criterios para elaborar las programaciones de los módulos formativos.

Dentro del marco del Proyecto Curricular de Centro, corresponderá al equipo docente, responsable del ciclo, y a cada profesor o profesora en particular elaborar las programaciones teniendo presente los objetivos generales que se establecen, respetando los resultados de aprendizaje y contenidos que cada módulo profesional contiene y, en especial, teniendo como soporte el perfil profesional que referencia las enseñanzas.



## Salud

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA EL CONTRATO DE SERVICIOS DE TRANSPORTE SANITARIO Y ASISTENCIA A EMERGENCIAS SANITARIAS PARA LA RTSU**

El Consejo de Gobierno ha autorizado el contrato de servicios de transporte sanitario y asistencia a emergencias sanitarias para la Red de Transporte Sanitario Urgente (RTSU) de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por un período inicial de dos años y un presupuesto de 36.378.273€.

El objeto de la contratación es la prestación del servicio mediante un total de 42 ambulancias y bases, de las que 9 son de soporte vital avanzado con enfermería y 33 de soporte vital básico. Por Territorios, 13 ambulancias se situarán en Araba, 10 en Bizkaia y 19 en Gipuzkoa. Estas 42 ambulancias, sumadas a las otras 31 que siguen operando con su contrato en vigor, suman las 73 ambulancias distribuidas estratégicamente por toda la Comunidad que conforman la Red de Transporte Sanitario de Urgencias de Euskadi, coordinada por la Dirección de Emergencias de Osakidetza.

Con el expediente cuya tramitación ha aprobado hoy el Consejo de Gobierno, se da por corregida la situación provisional creada tras la estimación en su día de un recurso que se presentó ante el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales y que paralizó el anterior procedimiento de contratación, es decir, se resuelve el contrato de emergencia a través del cual venían operando esas 42 ambulancias para asegurar la continuidad del servicio hasta que se adjudicara este nuevo expediente de contratación autorizado hoy.